



GIPUZKOAKO IBAI ARROAK, HONDARTZAK ETA ITSASERTZAK GARBITZEA

ZERGATIK?



Nabarmena da hondakinen presentzia, batez ere ibai-ibilguetan, eta horien bilketa beharrezkoa da espazio horien narriadura saihesteko eta itsasora ez iristeko.

Zabor-isurketak gero eta arazo orokor handiagoa dira ingurumenean, eta arazoari buelta emateko neurriak hartu behar dira. Kalkulatzen da itsasoetara iristen diren zaborren % 80 lurretik datorrela, neurri handi batean kontzientziazio publikorik ez dagoelako, eta horrek ibai-ibilguetan amaitzen diren hondakinak kontrolik gabe isurtzea eragiten du, azkenik, itsasoetara eta ozeanoetara iristeko.

Gipuzkoako kostaldeak eta ibaiek ere badute zerikusirik arazo horrekin, eta beharrezkoa da gaur egun aldundiak, udalek eta borondatez diharduten pertsonak egiten dituzten prebentzio eta bilketa-jarduerak zabaltzea.

NORK?

Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak



ZERTARAKO?

Baliabide ekonomikoak inbertitzea lurraldeko ibai eta kostaldeko eremuetan dauden hondakinak biltzeko operazioen profesionalizazioan eta sistematizazioan.

NOLA?

Proiektu honetarako aurreikusitako baliabide ekonomikoak bideratuko dira lehentasunezkoztat jotako ibaietako eta kostaldeko eremuetan dauden hondakinak biltzeko zerbitzua kontratatzeraz.



NON?

Lurraldekoa

NOIZ?

2022/10/10



200.000€